

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Margataniaren hooligana naiz

L'Equip petit. Zuzendariak: Roger Gómez eta Dani Resines. Herrialde Katalanak. 9'24".


LERROOK idazten dituenak badauzka akats ugari eta horietako bat da realzalea izatea. Eta gauza jakina da, inor ez da Realekoa futbol ona ikustea eta beti irabaztea atsegin duelako: abertzaletasuna eta galtzaileekiko miresmena konbinatuta egiten zara txuri-urdin. Orokorrean futbol modernoan enpresa afera bihurtua dago ordea, eta partikularki Donostiako taldearen presidente berria arma fabrikatzailea da, arrazoi pisuzkoak biak ere, nire realsozialismoa baztertu eta fede berri baten bila hasteko.

Basamortua zeharkatzea bezalakoa izan behar zuen lanak, beharrik bideoa parean jarri zaidala. Agertzen diren protagonista txikien izenak: Pol, Eduard, Adrià, Martí, Emma, Nil, Gerard, Roger, Dídac, Cristian, Ivan, Xavier, Ruth eta Haritz. Haien futbol taldea: Margatania. Denboraldi osoan ez dute gol bakarra sartu. Eta kopuru hori behintzat gauza ziurra da. Jaso dituzten

golak aldiz... inoiz ez daude seguru, hainbeste izaten dira partidu bakoitzean. Baina hain justu horixe, galtzearen plazera azpimarratzera dator bideo labur hau. Ondo pasatzea da garrantzitsuena eta Margataniako jokalariek ederki pasatzen dute. Futbola horretarako *ere* bazen, ezta?

Roger Gómez eta Dani Resines kataluniarrek egindako hamar minutuko dokumentaltxoa da *L'Equip petit* (Ekipo txikia). Taldeko kideen gurasoei eta lagunei erakusteko prestatu zuten, baina sarearen bidez alde guztiara zabaltzen ari da. Nahiko modan dauden definizio altuko reflex kamera horietako batekin grabatua dagoela iruditu zait eta emaitza txukuna da oso. Barre xamurra atera diote realzale ozipindu honi behintzat. Ez da gutxi. ■

Bideoa ikusi nahi baduzue helbide honetan daukazu aukera: <http://vimeo.com/25397042>



Z izpiak



ELHUYAR
edizioak

SENDABIDE ALA IRUZURBIDE. MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA PROBAN

Trick or Treatment? Alternative Medicine on Trial liburuaren euskarazko itzulpena.

Egileak: Simon Singh eta Edzard Ernst

Eraginkorra ote da medikuntza alternatiboa? Proba zientifikoek emandako ondorioak.

📖 15 € 📄 e-booka 11 €

Edzard Ernst egilearen hitzaldia:

Medikuntzan doktorea eta medikuntza osagarria irakasten duen munduko lehenengo pertsona.

Uztailaren 5ean. Miramar jauregian, arratsaldeko 7etan.

Informazio gehiago www.elhuyar.org webgunean

